



OZENKI ABESBATZA, 20 urte Imanol Kamioaren zuzendaritzapean kantari

Larraitx Uría Garin eta Imanol Kamio Etxeberria

Imanol Kamio (Ereñotzu, 1959) musikari ezaguna da Hernani eta inguruetan. Musikaria, musika irakaslea, abesbatzako zuzendaria eta konpositorea da, eta bizitza osoa darama musikari lotuta, musikagintzan lanean. Bere aitak, Nikolasek, abilezia handiarekin jotzen zituen panderoa eta kriskitina. Beraz, oso txikitatik hasi zen etxean musika entzuten. Baina musikarekiko miresmena Tolosako Tarragona zaharrari esker piztu zitzaion, liluratuta uzten baitzuen Ereñotzura bere soinuarekin joaten zen aldiro. Hari begira-begira jarrita beste ezerekin baino gehiago gozatzen zuen Kamio mutikoak, eta hala erabaki zuen musikagintza nahi zuela ogibide gisa.

Donostiako kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak 9 urterekin, solfeoa eta eskusoinua, lehenik, Mikel Bikondoa maisuarekin, eta pianoa geroxeago, Jose Cruz

Mujikarekin. Denborarekin beste hainbat musika tresna jotzen ere ikasi du. Musikaren pedagogia ikasketak burutu zituen eta alor horretan hainbat ikastaro ere egin ditu urte hauetan guztietan maisu handien alboan.

1980. urtean hasi zen musika irakasle gisa lanean, Ereñotzun eta Goizuetan, eta oso hasieratik ikusi zuen bizi-modu hori gustukoa zuela. Ikasleek ere gustuko izango zuten Kamio irakaslea, Ereñotzuko ume gehienak ibili baitziren berarekin musika ikasten, hainbeste, non, portak bakarra zegoen auzoan Kamioaren ikaslerik ez zuena. Eta ikasle horietako batzuk, gainera, urrutira iritsi dira musikaren arloan (*Etzakit* eta *Esne Beltza* taldeetako Xabier Solano eta Jon Mari Beasain; *Izotz*, *Esne Beltza* eta *Los 80* taldeetako Pello Gorrotxategi; *Duncan Dhu*, *Egan*, *Tapia* eta *Leturia*, *Alex Ubago* edota *Eñaut Elorrietarekin*



Ozenki Abesbatzaren lehenengo kontzertuetako bat, Ereñotzun (1995).



Ozenki Abesbatza Artzai Ona katedralean (1997).

ibili den Txus Aranburu; *Haritza* taldeko Javier Oskoz eta Pello Oiartzabal; *Izotz* taldeko Pello Mazizior; edota *Ansa Ahizpak*, batzuk aipatzearren). Umeei solfeoa eta musika irakasteaz gain, bere ikasle gazteekin abesbatza txiki bat ere osatu zuen.

Baina bere benetako grina helduen abesbatza bat sortzea zen. Erronka horri ekin ahal izateko, hau da, inguruko

helduak berarekin kantatzera animatzeko, 'tranpa' txiki bat prestatu zien: umeekin batera kantatzen hastera gonbidatu zituen haien gurasoak eta auzoko bizilagunak. Hala hasi zen Ozenki Abesbatza 1994. urtean eta ordudanik isildu gabe ibili da.

Ozenki Abesbatza Kamioren ikasleekin eta hainbat auzotarrekin sortu zen arren, gerora inguruko herrietako



Ozenki Abesbatza (1998).

kantuzale ugari gerturatu zaizkio berarekin abestera; gehienak hernaniarrak, baina baita aranoarrak, goizueta-
rrak, urnietarrak edota igeldoarrak; baita iruñar bat ere, Javier, hainbat urtetan astean pare bat aldiz Iruñatik Hernaniraino etortzen zena eta ozenkitarrek maitasunez gogoratzen dutena. Bestalde, ozenkitarren artean aipatzekoak dira Mari Carmen Santa Kruz eta Maite Zabala kontraltoak, abesbatzaren jaiotzatik gaur arte Imanolen ondoan egon diren bidelagun leialak. Hain zuzen, *“bi hauek segitzen duten bitartean”* berak ere segitzeko indarra izango duela esan izan du askotan Kamiok.

Hasierako garai haietako koru txikia, beraz, nabarmen handitzen joan da urtez urte. Baina hala ere, beti mantendu izan ditu hankak lurrean, abesbatza herrikoi baten helburuak ahaztu gabe: taldea eta lagun artea, beste ezeren gainetik.

Karabel auzoan Imanol Kamiok duen Doinu-Zale Eskola da Ozenki Abesbatzaren bilgunea. Bertan elkartzen dira denak entsaiatzeko astean behin gutxienez, eta gehiagotan ekitaldi bereziak prestatu behar izaten dituztenetan.

1994an hasi zen Abesbatza hau hogeitaz ibili da festa, ekitaldi eta egun berezietako agendak betez. Kontzertu gehienak herri inguruan eskaini arren, kanpoko herrietara ere bidaiatu izan du Ozenkik. Eta beste abesbatza edota musika talde batzuekin batera ere kantatu izan du, bai hernaniarrekin eta baita beste herri batzuetako abesbatzekin nahiz musika taldeekin ere.



Ozenkiko kideak entsaio batean (2000).

Ozenkiren kantutegia edo errepertorioa ere asko handitu da hogeitaz urtetan: *Txanton piperri* edo *Ave Maria*, *Donostiako ziudadia* edo *Barbero de Sevilla*, Xabier Leteren *Beatriz* edo afroamerikarren *Gospelak*... Horietako asko Imanol Kamiok moldatu eta egokitu ditu abesbatzak kantatzeko. Hainbat “pupurri” ere osatu ditu, estilo desberdinetako kantuekin. Eta ahotsarekin batera musikaren erritmoa eransten du askotan (eskusoinua, gitarra, tronpeta, pianoa, organoa, teklatura edota bateria), Kamioren ukitu pertsonal hori agerian utziz. Abesbatzarekin batera musika sartzen hastea ez zen kasualitatez gertatu, ongi hausnartuta baizik. 2000 urte inguruan Javier Zubimendi lagunak, eta garai hartan Kantuz Abesbatzako zuzendari zenak, Kamiori gomendatu zion



Ozenki Abesbatza eta Doinu-Zale eskolako soinu-joleak Gabonetako kontzertuan.





zertu batean (2001).



Ozenki Abesbatza Hernaniko parrokian ospatutako Musika Topaketa batean (2003).

zuku gehiago atera beharko liokeela Doinu-Zale Musika Eskolari. Lagunaren gomendioari kasu eginez, noizean behin berarekin ikasten zebilen musikariren bat Ozenkiren kontzertutara gonbidatzen hasi zen. Eta gustatu egin zitzaion abesbatzaren ahotsa eta instrumentua elkartuta sortzen zen efektua. Kanta batzuetan musika tresnak sartzeaz gain, Hernaniko Musika Bandarekin (eta beste musika banda batzuekin ere) hainbat kontzertu eskaintzera ausartu da Kamio. Izan ere, edoze- rekin atrebitzen da Kamio, eta badaki, gainera, doan le- kura moldatzen. Horregatik Ozenkik entzulerik fidelena ere harritu ohi du ekitaldiz ekitaldi.

Ozenki Abesbatzak urtero eskaintzen du Gabonetako kontzertua Hernaniko Musika Bandarekin batera.

Eta urtero parte hartzen du, baita ere, Tolarea Sagardo Na- turalaren Kofradiak udaberri hasieran egin ohi duen ospa- kizunean.



Ozenki Abesbatza (2009).



Ozenki Abesbatza eta Hernaniko Musika Banda, 2007ko Gabonetan eskaini zuten kontzertuan.

Ohiko bi emanaldi horiez gain, asko dira hogeitertan zehar girotu dituen ikuskizunak, baina modu berezian gogoratzen dituzte ozenkitarrek ondoko emanaldi hauek:

- 1998 urtean Anoetako estadioan "Bai Euskarari" kanpaina barruan antolatutako jaialdia.
- Oreretako Eguberriko Kantu lehiaketa, 1999 eta 2000ko Gabonetan.

- 2000 urtean Lluís Companys eta 1936an ihes egin-dakoen omenaldia, Irun Hendaian.
- 2010 urteko San Sebastian eguna Egiako Ur-zaleak elkarteko danborradarekin.
- 2010 urtean ACT Arraun Ligako irekiera ekitaldia. Bertan aurkeztu zuten ACT Ligako ereserkia Kursaalera aretoan, 1.500 lagunengain, Hernaniko Kantuz



Ozenki Abesbatza Tolarea Sagardo Naturalaren Kofradiak antolatutako ekitaldian (2002).



Ozenki Abesbatza Andoni Egaña bertsolariarekin, 2006 urteko Tolarea Sagardo Naturalaren ekitaldian.



Ozenki Abesbatza Oreretako 1999ko Gabonetako kantu lehiaketan.



Ozenki Abesbatzako kideak, danborradan ateratzeko prest.



Ozenki, Kantuz eta Umore Ona abesbatzak Kursaal.

eta Goizuetako Umore Ona abesbatzek lagunduta. Hurrengo bi urtetan ere kantatu zuten arraun ligako irekiera ekitaldian, 2011n Santanderreko Palacio de Festivales-en eta 2013an berriro Kursaal.

- 2014 urteko maiatzaren hasieran Abesbatzaren 20. urteurrena ospatzeko kontzertua, Getariko Musika Banda eta Zikuñagako Ama danborradaren laguntzarekin.

Beraz, lagun giroan eta ospakizun txikietan kantatzen hasi zen arren, Ozenki Abesbatza ekitaldi garrantzitsu eta oholza erraldoietan kantatzera iritsi da.

2007. urtean, Juan Antonio Lekuona lagun goizuetarrak animatuta, Ozenki eta Goizuetako Umore Ona abesba-

tzek Aurorak ekarri zituzten Hernanira. Aurorak gazte-raz abesten diren eliz kantak dira, diana modura abesten direnak. Baina bi abesbatza hauen Aurorek badute berezitasun bat: ez dira eliz kantak eta ez dira gazte-raz abesten. Euskaraz eta hainbat musika tresnaren laguntzaz abesten dira kalez kale, eta arrakasta handiko ikuskitzun bilakatu dira Hernanin; azken 7 urtetan ez dira inoiz falta izan San Juan jaien programaren barruan. Urtero kanta berri bat aurkeztu ohi dute, Auroren errepertorioa aberastuz.

Imanol Kamio Ozenki Abesbatzaren zuzendaria izateaz gain, konpositorea ere bada, eta asko dira berak moldatu edo sortu dituen doinuak. Azken hauen artean aipagarrienak hauexek dira:



Ozenki Abesbatza, Getariko Musika Banda eta Zikuñagako Ama danborrada.

- Ozenki Abesbatzaren kanta, koruaren izaera deskribatzen duena: «Kantu kantari, gu beti cantu kantari, cantu kantari Ozenki».
- Hernaniko Kirol taldeen ereserkia, errugbi eta futbol taldeei indarra emateko: «Hernani beti beti Hernani, Hernani beti aurrera!!!».
- Zikuñaga auzoko danborrada, «Gora Zikuñagako Ama».
- ACT Arraun Ligako ereserkia, euskara, galiziera eta gaztelania tartekatuz abesten dena eta telebistan estropada saio guztien amaieran entzuten dena: «El ritmo en el mar, de los brazos al remar; a gran liga,

los mellores o mar, traiñas, remeiros... olatuekin entzungo dituzunak, oiho ta kantuak...».

- Hernaniko Amaia-Aimar Elozegi Ansari eskaintako kanta: «Nora zoaz uxo zu? Zoriona non duzu? Non pentsatu dezakezu? Non daukazu zuk deskantsu? Besarkada ta muxu, zeinek ematen dizu? Atsedon non daukazu? Esperoan gaituzu...». Kanta hau 2014ko maiatzaren 3an aurkeztu zen, Ozenkik bere 20. urteurrena ospatzeko eskaini zuen kontzertuan.
- Emazteari eskaini dion Katebegia sinfonikoa.
- Eta beste hainbat eta hainbat moldaketa, abesbatzak abesteko prestatuak.



Aurorak Hernaniko kaleetan barrena (2009).



Goizuetako Umore Ona eta Hernaniko Ozenki eta Kantuz abesbatzetako kideak, 2014ko Auroretan.



Ozenki Abesbatza (2014).

Kanta hauek eta Ozenkiren beste hainbat emanaldi ikusgai gaude Abesbatzaren web orrian (<http://ozenkiabesbatza.com/>).

Aurten bere 20. urteurrena ospatzen du Ozenkik. Inori aterik itxi gabe, denei bere lekua emanez, aurrera egin du Abesbatza honek hogeitaz hamar urte oparo bete dituen arte, eta irabazi du leku bat herriko abesbatzen artean.

Ez dago jakiterik beste hogeitaz hamar urtez izango den ala ez, baina oraingo ilusioagatik bada, gehiago ere bete ditzake Ozenkik, kantu kantari, lagunak goxatzen eta bide berriak urratzen.

Serio itxura izan arren, umore handiko gizona da Imanol Kamio, profesional handia, musikari paregabea, langile fina eta lagun bikaina. Eta ezaugarri horiei esker lortu ditu bere lorpen guztiak.

Ibilbide oparoa egin du eta urte asko eman ditu Kamiok musikagintzan, musikaz, musikarekin eta musikarentzat bizitzen. Eta halaxe jarraituko du hemendik aurrera ere, ezinbestekoa baita musika bere bizitzan: musika jasotzea, musika egitea, musika eskaintzea, musika gozatzea eta gozaraztea. Eta bere jarraitzaileok ere, noski, berarekin segituko dugu eskaintzen diguna hartuz eta disfrutatuz.